

“IKASLEENTZAT, KOSMODISEA ERAKARGARRIA IZATEAZ GAIN, PROIEKTU BERRITZAILEA ERE IZAN DA”



Aitor Uriondo - Axular Lizeoa | Lehen Hezkuntza Neo [2. saria]

Aitor Uriondo, Axular Lizeoko irakaslea (Donostia), ikastetxe donostiarreko “Kosmo-team” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du Lehen Hezkuntza Neo kategoriako bigarren saria. Uriondok adierazi duenez, Kosmodisea 2011-2012 lehiaketan parte hartzea erabat onuragarria izan da, *“ikasleentzat, baita irakasleentzat ere”*. Ikasleek lehen egunetik ekimen honekiko interes handia erakutsi zutela gaineratu du. *“Gaia erakargarria eta proiektua motibatzailea zirela ikusi dute”*.

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Emaitzak onak direnean, lana are gusturago egiten da. Sailkapenean aurrera egiten ari ginela ikustean motibazioa areagotu zaigu. Hala ere, emaitza onena taldeak garatu duen lana izan da.*
- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?
- *Wikiei garrantzi handiagoa ematea oso egokia iruditu zaigu, eskolako dinamika antolatzeko oso tresna baliagarria dela ikasi baitugu. Wikiak egunez egun egindako aurrerapenak erakusteko balio digu eta, gainera, etxetik lan egiteko aukera ematen digu.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?
- *Proiektuak sustatzen dituen gaitasunak oso erabilgarriak direla uste dugu. Talde-lanak nahiz teknologia berrien erabilerak irakasleoi gure curriculumean dauden eduki anitzak lantzeko aukera sorta zabala irekitzen digu.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?
- *Orokorrean, proiektua oso ongi diseinatua dagoela uste dut. Gazteenentzako egindako ebaluazio-sistema berrikusi beharko litzateke, hainbat zailtasun baitaude. Bestalde, simulagailua errepikakorra dela uste dut.*

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?
- *Gustatuko litzaiguke parte hartzea.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...
- *Proiektu mota hauek sustatzen jarraitu behar da, guztiontzat baitira onuragarriak.*